

MIKEL
ARIZAMENA



2
NERE ALDIA

G-48-1207



NERE ALDIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

127

EDITORIAL AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12 — Tolosa
(Guipúzcoa)**

MIKEL AROZAMENA

NERE ALDIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1976

Azaleko argazkia: Foto Arturo, Donostia.

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Gulpúzcoa)
Inprimatzalle: IZARRA - Polígono 36 - Usúrbil (Gulp.)
Depósito Legal S. S. 236/76
I S B N 84 - 7158 - 003 - 9
Mayo - 1976

ARKIBIDEA

Itz bi	9
Nere jaioterria	11
Astigarraga	16
Andres Narbarte zana	25
Donosti'ko 1966'ngo aizkolari-txapelketa	32
Aurtengo kinto-bazkaria (1976)	37
Aita Murieta zanari	44
Amorizko bertsoak. Neska ta mutilla	49
Elizondo'ko jaia	56
Aur galtze edo abortua	61
On Franzisko apaiz ospetsuari	67
Museko kontuak	72
Azkarate eta Atanori	79
Elizondo'ko baztandarren biltzarrari	82
Kamioetako ezbearrak	87
Txantxangorria	94
Kalifornia'ko berriak. Lekarotz'ko Migel Baraibar'ek jarriak	99
Bertso berriak. Mikel Arozamena'k Mikel Baraibar'i ordañetan	103
Kalifornia'ko berriak. Migel Baraibar'ek Migel Arozamena'ri jarriak	108
Mikel Baraibar'eri biotzez Mikel Arozamena'k ordañetan	112
Eizeko kontuak	117
Leiza'ko osaba Migeleri bere illobak	122
Zikuñaga'ko Amari	127
Nere lagun Uztapideri biotz-biotzez	134

ITZ BI

Mikel Arozamena Larralde bertsolaria, Lesaka'n jaio zan, Bitiri kaleko Mikelenea etxean, 1930 urteko Abuztuaren 31'an, beraren amak esaten duanez, eta 30'an, erriko etxeko agiriak dionez.

Gurasoak ere lesakarrak: Luis eta Maria.

Andik Bordaberri'ra aldatu ziran. Etxe ori, Bedio'ko zubia pasa ta erriko sarre-ran dago, Salbatoreko ermitatik aurrera-xeago joan eta eskubiko aldean.

Berak zazpi urte zitularik, Astigarra-ga'ra etorri zan fameli guzia, eta Ollalu-me ballarako Arana-eder etxean bizitzen jarri.

Zortzi senide izan dira: bi illak, bat jaiotzean eta bestea, Kontxita, umetan; ta sei bizi: Mikel, zaarrena, Manuel, Baleriana, Benita, Joxe ta Tomaxi.

Gazterik asi zan bertsoan, Astigarra-

ga'ko sagardotegietan-eta. Geroztik ia igandero or dabil erriz-erri, etengabeko jardunean. Zenbat bertso kantatu ote ditu onezkero?

Orregatik, aurtengo Maiatzaren 23'an, beraren jaioterriak aitorten bat egin nai dio, ondo merezirik duan omenaldia eskeñiaz.

Bestetan ere egin izan duanez, *Auspoa'k* jaialdi orretan esku artu nai du, bertso-liburu au argitaraturik.

Bertso auetatik batzuk, lendik paratuak zituan Arozamena'k eta *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratuak. Bañan onera baño len, berriz ere aztertu ditu, eta an da emen ikutu edo aldaketa batzuk egin ere bai, bere gustora ipintzearren.

Beste batzuk, berriz, oraingo berriberriak dira, bere gogoko gai batzueri jarriak.

Orrenbesterekin irakurlea jabetu da liburu au zer dan eta nola egiña dan. Bere atsegingarri izango al du. Ez genduke besterik nai.

NERE JAIOTERRIA

- 1/ Naparrua'ko erri bateri
jartzera nua bertsuak,
danak merezi ditun erria,
ain ditu txoko goxuak;
pake santuan bizitzen dira
lau aldetako auzuak,
baña zer pentsatutzen ote du
Ama Euskara gaxuak?

- 2/ Izenez deitzen zaio Lesaka
esan nai nuen erriya,
dana mendiaz inguraturik
ortxe daukagu jarriya;
bertan jaiua dan batentzako
ikustia pozgarriya,
nik ere ortxe ikusi nuan
lendabiziko argiya.

3/ Zazpi urtekin aldegin nuan
ezagun danak utzita,
baña ni sortu nitzan erriaz
beñere ez nago antzita;
gure euskera ordun zegoan
guztia lorez jantzita,
baña negarra gaur egin leike
ainbat erdara ikusita.

4/ Lengo batian izandua naiz
ni sortu nintzan erriyan,
eta bakarrik aiton batzuek
gure euskera garbiyan;
gazte guziak erdaraz berriz
gu sortu giñan kabiyan,
izugarritzko pena artu nun
nere biotzan erdiyan.

5/ Mutil koskorra nitzan garaian
eunero Eskol'ko zubira,
ni bezelaxe geiago ere
an ibiliak badira;
pentsamentuan jarri ezker
zer datorren memorira:
ia erria biurtu leiken
lengo izkuntza garbira.

6/ Ai, agintari agurgarriak,
ementxe nator eskian:
ardiak ere banatzen dira
artzayik ez ikustian;
gero negarra alperrikan da
denbora asko juatian,
euskaran alde saia zaitetze
zuen bizitza guztian!

7/ Gure Lesaka mudatu zaigu,
dana dago aundituta,
aurrerapenak olako gauzak
mundun egiten ditu-ta;
ainbeste etxe egin dituzte
erri dana berrituta,
eta jendea laster da noski
bertan ezin kabituta.

8/ Fabrika aundi bat egiteko
nola artu zuten idia,
ogia etxera ekartzezkerok
olakuak bear dia;
bertan naikua osatzen ez ta
kanpotik dator jendia,
erdara ona oientzat baña
guk maita zagun guria.

- 9/ Arratzubi'ko pesta izaten zan
urtero San Permiñetan,
ni're prankotan jua izan naiz
amonaren besuetan;
orain eztakit ori egiten dan
aspalditako urtetan,
zar da gaztiak dantzatzen ziran
beren erriko pestetan.
- 10/ Aitan aldeko aitona nuan
Lesaka'n jaio ta aziya,
eta amona berriz omen zan
Sunbilla'tik etorriya,
Erreuteneko basarri ortan
ezkondu eta jarriya;
eta bertatik mugitu gabe
azi zuten familiya.
- 11/ Nere amaren aita ta ama
biak ziran Lesakarrak;
oik bezelaxe asko izan dira,
noski eztira bakarrak;
lau seme ta lau alaba azitzen
egin zituzten indarrak,
asko ez baña oraindik ere
badira Sueltotarrak.

12/ Lesakar batek bertso batzuek
guztizko borondatian,
berriz bisita bat egingo det
orrelakoren batian;
nere kabia ikusitzen det
Lesaka aldera juatian,
ordu goxuak pasatzen ditut
nere sorterri maitian.

(Príncipe de Viana, 1972, VI)

ASTIGARRAGA

- 1/ Astigarraga deitzen diogu,
erri bat zoragarriya,
ni Lesaka'tik etorri eta
ortxen bizitzen jarriya;
alde batetik Portutxo dauka,
bestetikan Ergobiya,
orain auzua izaten degu
lenago zana erriya.

- 2/ Lesaka'tikan etorri nitzan
nere pameli danakin:
iru senide anai ta arreba
eta aita ta amakin;
aitaren lana emen zan eta
bizi biar alkarrekin
bata bestian laguntzarekin,
iñortxok nai badu jakin.

3/ Astigarraga'k pama izan du
sagardo onak izaten,
mutil koskorra nitzan ni baña
goguan nola daukaten;
aste santuan elizkizunak,
gero sagardo edaten,
esan nai nuke eztakitenak
orain jakindu dezaten.

4/ *Gartziategi* eta *Portutxo*
ta *Mendiola* urrian,
Kakonia eta *Errekalde*
berebiziko indarrian;
*Jose-Beltza'*neko Rikardok e
*Desierto'*ko kupelian,
ta *Izaskun'*go arrobikuak
eztira oso motelian.

5/ Andik urrena *Santiyomendi*,
ara mendian kaskuak,
an e kupelak izaten ziran
eginda dauzkat juzkuak;
andik e jetxi izandu dira
maleta egiazkuak,
ta *Goikoetxe'*n egoten ziran
sagardo bikaiñ askuak.

6/ Beste bat bada Astigarraga'n
Borda deitzen dioguna,
nik bezelaxe geiagok ere
izango dute entzuna;
pameli dana ezagutzen det,
berakin badet jarduna,
biotz-biotzez serbitzen dute
eskatutzen diozuna.

7/ Astigarraga'tik Ergobi'ra
goazen poliki-poliki,
pixka batian itxogin eta
esango ditut ederki;
Ergobi ortan egiten dute
sagardo ona galanki,
etortzen dana serbitutzen da,
ez bildurrikan eduki.

8/ Ergobi'n sartu eta an dezu
eskubitara *Pausua*,
perratzallian sagardoteia
goguan daukat jasua;
an ere beti izaten dute
mama eder ta gozua,
dexente xamar edaten badu
bilduko du erasua.

9/ Beste bat ere goguan daukat
bera Ergobi'ko plazan,
sagardotegi eder askua
Eprepane ortan bazan;
bein eta bitan ibili giñan
Eduardonia'n gu saltsan,
Ergobi'kua utzi zun eta
gero Ernani'ra juan zan.

10/ Andik urrena guk badakigu
Iraberri'kua dala,
juaten danari serbitutzeko
gizon jator da apala;
gazte denboran egiten gendun
or edaten egiñala,
gaur berrizikan esan diteke
danak mudatu dirala.

11/ *Iraberri'tik* begiratuta
Krispiñena da urrena,
urte batzuak izango dira
gutxi egiten duena;
ez gero pentsa sagardo-kontun
izan dala makalena,
urte batian beintzat berak zun
Ergobia'n zan onena.

- 12/ Beste bat Joxe Arrieta zan,
gutzat *Otaño* munduan,
aretxek ere sagardo ederrak
ordun egiten zituan;
gure Jainkuak deia eginda
gaur ezta gure onduan,
biotz-biotzez opa diot nik
gerta dedilla zeruan.
- 13/ *Otaño*'neko beste aldian
da *Pagua* baserriya,
garai batian uraxe ere
gendun sagardotegiya;
Martin zana're jua zitzuigun,
bera ango nagusiya,
arixe ere desio diot
beti-betiko gloriya.
- 14/ *Garratxenia*'n egiten zuten
ez beste oiek ainbeste,
amaika aldiz etxe orretan
gu're serbitu gaituzte;
sagardua edan bertsuak bota,
kontu alai eta txiste,
garai artako lagun jatorrak
danak goguan dituzte.

15/ Ergobi'tikan irten da gero
ortxe degu *Gurutzeta*,
sagardotegi bikaña dago,
jende askok dakite-ta;
tortilla eta txuleta ederrak
ondo serbitzen dute-ta,
bat argi-argi ibili arren
etxeratzen da beteta.

16/ Or *Gurutzeta*'n dexente edanda
beste bat bada urrena,
sagardotegi bikaiñ askua,
Oiarbide du izena;
sagar onakin urikan gabe
au da egiten dutena,
orregatikan urte askotan
bera izaten onena.

17/ Eztakit danak esango nitun,
baliteke aztutzia,
kolpe batian ezta erreza
guzietaz oroitzia;
aurretik ona izan liteke
erreparuan jartzia,
ta iñorekin utsegin badet
nai nukena barkatzia.

18/ Astigarraga Euskalerrian
jende askok du entzuna,
erri aundia eztegu baña
polita eta txukuna;
Txirrita zanak trago ederrak
emen egiten zituna,
oraindik ere maitatutzen da
aitonak utzi ziguna.

19/ Euskaldunentzat ederrik bada
au da sagardotegiya,
Astigarraga'n ugari bada
naiz izan erri txikiya;
bide bakar bat auxe degu-ta
antziñakuak utziya,
Euskalerriko eraria da
sagardo maitagarriya.

20/ Urte-pasako gaur egiten du
bakoitzak bere etxian,
denbora baten Donosti'tikan
asko etorritzen zian;
garai aietan sagardotegin
nunai jartzen zan txotxian,
ai zer okerra etorri zaigun
lengo oiturak galtzian!

21/ Astigarraga'n ni bizitu naiz
ogei ta amar bat urtian,
poza ta penak izandu nitun
an negoen bitartian;
seme ta alaba kanposantuan
antxe dirade lurpian,
ta guk ementxe jarraitu biar
Jaunak nai duan artian.

22/ Ara nolatan izandu diran
nere emengo pausuak,
pasatu ditut egun tristeak,
baitare une gozuak;
Arana-eder etxeak eta
Gurutzeta du auzuak,
gure arreba zarrenarekin
antxen daude gurasuak.

23/ Gu sei senide bizi gerade
eta zortzi izanduak,
badakizute, gorabera asko
izaten ditu munduak;
aitak ekartzen zuanetikan
jantzi eta mantenduak,
kaso egitea merezi du gaur
len ainbeste lagunduak.

24/ Dozenatxo bat jartzeko asita
au ogei ta laugarrena,
geiago esan gabe uztiak
neri ematen dit pena;
bukatu zaigu etorria ta
aspertu're bai barrena,
okerrik egin badet barkatu,
auxen da nere azkena.

ANDRES NARBARTE ZANA

1/ Goizueta'ko baserri baten
jaio zan Andres Narbarte,
auxe entzunda nere zentzuak
kontua pranko dakarte;
gu alkarrekin ibiltzen giñan
zu emen ziñan bitarte,
bañan emendik aldegin zendun
eta egun aundira arte!

2/ Gure Jainkuak ala nai eta
juana zera betiko,
Josafateko zelaian berriz
degu alkar ikusiko;
plaza batzutan gu alkarrekin
nola giñan ibiliko,
pentsatzen nago etzaitudala
iñoiz aztutzen utziko.

3/ Ni bezelaxe jaiotzetikan
zu ere ziñan naparra,
jendeak zure bertsuarekin
egiten zun naiko parra;
zure biotza eta mingaňak
izaten zuten indarra,
gogoratzia bakarrarekin
etorritzen zait negarra.

4/ Lendabiziko gu Goizueta'n
aritu giñan kantari;
oraindik ere etzaigu aztu
ni ta nere lagunari;
jai-arratsalde bat izan zala
esango diet danairi,
zuk botatako bertso ederrak
poza eman ziraten neri.

5/ Gero andikan berialaxe
asi ziñan txapelketan,
gauzak garbiro esatekotan
nik eztakit zein urtetan;
zu baňo gizon gaiztuaguak
bagera mundu onetan,
gure artian etzaudelako
geroztik nago penetan.

- 6/ Gero urrengo jardun-aldia
guk Naparrua'ko Bera'n,
«Anai bezela maitatzen aut i!»
esan zirazun sarreran;
jakin nai nuke mundu onetan
olakuak zenbat geran,
baña pentsatu, Andres maitea,
nola aztutzen ezkeran.
- 7/ Bera ortatik juañ giñaden
Iruña'n juntatutzeko,
gu biok eta beste sei lagun
bagiñun kantatutzeko;
Goizuetar batzuk ere joan ziran
gurekin bazkaldutzeko,
ai zer kuadrilla juntatu giñan
eguna pasatutzeko!
- 8/ Eguna Iruña'n igaro eta
etorri biar etxera,
«Etxera nola joango gaituk?»
egiten gendun galdera.
Esan zirazun: «Nik badit, motell,
tokiya eta aukera!»
Bere onduan ekarri niñun
Goizueta'n apaldutzera.

- 9/ *Gayarre*'n gendun kantatu eta
gero *Iru Errege* otela,
an tripa ondo goxatutzeko
eztago jende motela:
zopa ederra eta arraia,
ondorenian okela;
esaten zedun: «Kantatutzeko
orain bai ondo gaudela!»
- 10/ Amaika olako egiñak gera
baña orain berexita,
negar-malkuak etortzen zaizkit
alkar ezin ikusita;
betiko pozik ezta izaten
emen alderdi guzita,
gure Jainkuak ots egitian
gingo dizut bixita.
- 11/ Zure amakin bizitzen ziñan
basarri polit batian,
Goizueta'ko sarreran dago
zugaitza batzun tartian;
amaika lana egin zenduan
bizi ziñan bitartian,
orain zeruan goxatzen zaude
Jaunaren borondatian.

- 12/ Amak etxeko lanak eginda
zuk berrizik sorokuak,
ardiak eta beorrak ziñun
mundu ontan gogokuak;
ala bearko zan eta deia
egin zizun Jaungoikuak,
bere onduan artutzen ditu
zu ziñan bezelakuak.
- 13/ Zuregatikan esaten gendun
Xalto Goizueta'kua,
danok dakigu nola ziñaden
oso lagun artekua;
baña izena Andres zenduan,
orixe da pontekua,
izengoitia *Xalto* zenduan
lagunak jarritakua.
- 14/ Uztartutzerik etzuan izan,
oraindik zan ezkontzeko,
baña biotza izaten zuan
edozeñi maitatzeko;
mundu ontara sortutzen gera
nola edo ala bizitzeko,
Jaunak etziñun zu ezkonduko
negarrik ez utzitzeko.

15/ Egun batian ni Ernania'n
Goizueta'ko batekin,
ta aspalditik zure berririk
nola batere ez nekin,
galdetu nion: «Aspaldi ontan
egondu al aiz *Xalto*'kin?»
Erantzun ziran: «Lengo batian
erreta il dek suakin!»

16/ Ark esan ziran juan ziñala
larre batzuk erretzera,
eta denbora-puska batian
buelatu gabe etxera;
laguntza eske asi ziñala
lengo artzaian antzera,
mesere egin-ustetan juanda
juan zan bizia galtzera.

17/ Itzikan gabe gelditu nitzan
orduntxe momentu baten,
lagunagatik sentitzen nuna
ezta erreza esaten;
geroztik eztakizu zuk, Andres,
nolako pena daukaten,
zu bezelako anai jatorrik
ezpaita nunai izaten.

18/ Auxen da ari esan niona:
«Gertatu bazan lenguan,
zuk esan arte abisorikan
batere izan ez nuan».
Ainbeste aldiz len ibiliak
biok alkarren onduan,
gure Jainkuak artuko al ziñun
beti-betiko zeruan.

19/ Batek eztaki mundu onetan
zenbat ordu dun berekin,
al dan artian saiatu bear
borondate onarekin;
zuk ere etzendun oker aundirik
ta lasai egon orrekin,
gu're ezkera luzaroko ta
laister gera alkarrekin.

20/ Eriotz ortaz pentsatu bear
mundu ontan gaudenian,
ta barkatzeko eskatzen dizut,
Andres maitea, azkenian;
Josafateko zelai santuan
Jaunaren zorionian
ai zer nolako besarkada guk
alkartutzen geranian!

DONOSTI'KO 1966'NGO AIZKOLARI-TXAPELKETA

- 1/ Epaillaren seia zan eta
eguardiko amabietan,
aizkol-jokua izandu degu
Donosti'ko Anoeta'n;
ondo prestatzen saiatu dira
Naparru alde orretan,
irabaziak pozez daude ta
galdutakoak penetan.

- 2/ Berakoetxea eta Astibia
ta Arretxe Naparru'tikan,
oikin batean beste lau ere
Gipuzku'ko lurretikan:
Errekalde eta Polipaso,
Zeberio Ataun'dikan,
ta Beizama'ko Arbeldi'k ere
eztauka iñon lotsikan.

3/ Amabi milla lagun bagiñan
danak begiz ikusiyak,
egualdiya're ona genduan
Jaungoikoari graziyak;
bi napar oiek argitu'ituzte
len dudan zauden guziyak,
etzitzaizkaten gaizki etorriko
Donosti'ko irabaziyak.

4/ Amabiak eta laurdenetan
egur gañian jarriyak,
beren jostalluk eskuan artu
an zazpi aizkolariyak,
bata besteai artu-asmotan
lana egiñaz neurriyak;
danak aurretik bota zituan
napar txapeldun berriyak.

5/ Astibia gazte orixe degu
txit aizkolari polita,
jo-aldi onak egin zituan
egur gañian jarrita;
txaloka ezin ixildu giñan
danak zitun merezi-ta,
ark bigarrena eramana du
kuarteletik etorrira.

6/ Azkoitia'ko Errekalde'k e
zerbait nola dun merezi,
egiñalak nola egin zitun
guziok gendun ikusi;
norbaitek atzetikan biar du,
danak ezin da lenbizi;
zu oraindikan sasoiko zaude,
jarri zindezke nagusi.

7/ Polipaso're ikusi gendun
lan egiteko gogotan,
beti nagusi izango danik
ezta sortuko lur ontan;
atzera samar gelditu ziñan
aurren izana askotan;
zer esanikan ezta orrentzat,
etzegon kondiziotan.

8/ Ataun aldeko Zeberio ori
izan gendun bosgarrena,
joku aurretik jendiak zion
izango zala azkena;
gizon ori zan aizkol-jokuan
iñun ikusi ez nuena,
mutil txikia izanagatik
Goierriar pizkorrena.

9/ Sunbill aldeko Arretxe ori
izan gendun ondotikan,
bestiak ainbat uraxe ere
saiatu zan gogotikan;
len esan dedan ataundar ori
sartu zaio aurretikan,
bosgarren malla ark kendu zion
kolpe batzuengatikan.

10/ Lenagotikan entzuten gendun
Arbeldi orren izena,
gorputz polita dauka oso ta
aizkorarekin zuzena;
or atzetikan ziñala eta
etzazu eduki pena,
aizkoran eta korrika bitan
gaur zu zerade onena.

11/ Berakoetxea, txapeldun zera,
zertako egon izkutun?
Lenago ere zure lan asko
ementxen dauzkagu kontun:
Tolosa'n ogei kana erdiko
aixa nola moztu zitun,
gorputzik asko nekatu gabe
berroi ta zazpi minutun.

12/ Zeñek pentsatu Berakoetxea
arren pizkorra zegonik
ta orren denbora gutxian danak
puskatuko zituanik?
Apustutxo bat egingo nuke
naiz pobre izan neonik:
lana orretan eztala mundun
gaur zu autsiko zaitunik.

(Principe de Viana, 1966, VII-VIII)

AURTENGO KINTO-BAZKARIA

(1976)

1/ Apirillak lau zitun
lengo igandian,
bildu giñan lagunak
Azpeiti aldian;
meza entzun da gero
alako artaldian,
aspaldi egon gabeko
lagunan galdian.

2/ Kinto-lagunak giñan
irureun bat iya,
toki askotatikan
baitzan etorriya;
erri koskor bateko
oi da pameliya,
Azpeitia'ko Simon
gendun gidariya.

3/ Lenengo meza entzun
gero bazkaltzeko,
Etxaniz'en giñaden
guziak biltzeko;
deia egiña baizan
nai zuna etortzeko
lengo lagun jatorrak
besarkatutzeko.

4/ Bazkaldu bitartian
soseguz jendia,
alkarrerri esanaz:
«Urtiak juan dia!
Berrogei ta seiekin
ia naiko lan dia,
lengo erokeriak
etorriko al dia?»

5/ Amaikak inguruan
asi giñan biltzen,
ezaguera eman da
alkar besarkatzen:
«Nola egondu giñan
ez al aiz oroitzen?»
Malkuak nola eztakit
etziran erortzen.

6/ Ezkongaiak badaude
ta ezkondutakuak,
asko baigiñaden an
juntatutakuak;
bertako batzuk eta
asko urrutikuak,
ogei ta bost urtian
bildu gabekuak.

7/ Alkar besarkatutzen
bat eta bestia,
alkarrerri esanaz:
«Ez niok gaztia!»
Ainbeste lagun zarrek
alkar ikustia
jayian gertatu zan,
gezurrak ezta.

8/ Kintuak bagiñuzen
batzuk soñuakin,
etortzeko zirala
aurretik banekin;
kinto-lagunak eta
umore ederrakin,
broma ederra pasa
gendun alkarrekin.

- 9/ Soñu jotzallia bat
zan Bergara'kua,
nere lagun batzukin
egondutakua;
obeto esateko
da Oxintxu'kua,
amaika egun eder
pasatutakua.
- 10/ Lizartza'ko itxua
an gendun sallian,
gustora egondu zan
bazkaltzen sillian;
ura're nola baitan
kintuan mallian,
broma jartzeko ona
apal-apalian.
- 11/ Irugarrena berriz
zan Azkoitia'kua,
trikitilari ona ta
mutilla bapua,
Martirita deitzen dan
auzo ortakua,
amaika biotz triste
alaitutakua.

12/ Elortza deitzen zaion
gizona da ori,
Bergara'k eta biak
jo zuten ugari;
Kaxiano itxua berriz
jo eta kantari,
ankak mugituzeko
iru soñulari.

13/ Kinto bazkaria zan
ta eguna pestetan,
denok kantari eta
iñor ez kezketan;
akats txiki-txiki bat
izan zan mezetan:
ainbeste euskaldun ta
erderaz izketan.

14/ Eleizatik irten da
ondoren bazkaldu,
okerra zer izan zan
aguro azaldu;
errezuak berdintsu
balioko al du,
bañan oitura zarrik
etzagula galdu.

15/ Danak itzegin gendun
andik erterako:
«Pesta ezta egin bear
gure kalterako;
apaiz euskaldun asko
daude aukerako,
bat billatu bear da
urrengo urterako!»

16/ Bazkaldu eta gero
egin zan galdera:
«Urrengo urte ortan
nun bilduko gera?»
Nai zana aukeratzeko
bazegon aukera,
berriz aukeratu zan
aurtengua bera.

17/ Iruregun lagunek
bear du galanki,
guri tripa betetzen
norbait e erruki;
azkar eman ziguten,
gañera ederki,
nun billatuko degu
orrenbeste toki?

18/ Ara pasadizua
danairi kontatu,
batzuk soñua jo ta
guk berriz kantatu;
asarrerikan gabe
umorez bukatu,
gure Jaungoikuari
zer geio eskatu?

19/ Urrengo bazkarira
amabi illabete,
Martxon oi ta zazpia
izendatu dute;
egun ori biotzez
nola degun maite,
agur, kinto-lagunak,
udaberrira arte!

AITA MURIETA ZANARI

1/ Uztaroaren illian geunden
eta amairu egunak,
euskaldunentzat etorri ziran
notizi txar da illunak:
Aita Murieta nolatan il zan
deiturikan Goiko Jaunak;
piska bateko pena badegu
ezagututzen gendunak.

2/ Irurogei ta beatzi urte
pasa dituzu munduan,
amaika bider zu ta ni biok
alkar ikusi genduan;
nerekin beti portatu ziñan
praile jatorran moduan,
argatik dakit egongo dala
Zeruko Aitan onduan.

3/ Murieta'ko errian jaio
ta euskeraz etzekiña,
baña gogotik saiatu gero
ikasitzen alegiña;
nunbait barrendik sumatzen zuan
euskaldunen odol piña,
obe genduke ura bezela
denak saiatu bagiña.

4/ Bertsolariak nun izango ta
beti an gendun atzetik,
nunbait euskara maitatzen zuan
buru eta biotzetik;
txapela burun, bizar aundia,
karteratxoa eskutik,
euskaran alde amaika eginda
juana zera mundutik.

5/ *Umeen deia* egiten zuen
eta zabaldu erritâ,
ordaindu gabe bialtzen zuen
aurtxoak zauden tokitâ;
arentzat pozik aundiena zan
euskal kontuk bialita,
neonik ere bialdu nizkan
bertsotxo batzuk jarrita.

6/ Iru urtian gaizki egondu,
ala negon adituta,
eta oroitzian jartzen zitzaidan
biotza erdibituta;
beste mundura orain juan zera
guzion Aitak deituta,
beti-betiko sendatu zera
emen asko suprituta.

7/ Zure izena jarriko det nik
merezi dezun bezela,
pentsa dezagun Murieta'gandik
oroitutzen geradela;
biotz barrendik maitatzen zendun
gure izkuntzan epela,
iruritzen zait oraindik ere
gure artian zaudela.

8/ Jaioterria maitatzen zendun
beste edozeñek añian,
orreatikan saiatu ziñan
ainbeste urtez lanian;
bein eta bitan zu ere noski
aiko ziñan eziñian,
orain zerutik laguntza egin
gu estu gabiltzanean.

9/ Azken aldian zukin izketan
ni Iruñian egonik,
eta orduan esandakuak
gaur e goguan ditut nik;
esan zenidan: «Ementxe nago
zutikan egon eziñik,
nere gorputza xartu onetan
eztet izango gauz onik».

10/ Ezin nitazke nik emen jarri
zuk esandako guziak,
gauz asko ditu Arozamena'k
zuregandik ikasiak;
iru urtian argaldu zaitu
zoritxarrez minbiziak,
beti irriparrez itzegiten zun
naiz-ta egon oñaziak.

11/ Euskaran alde saiatu ziñan
emen ziñaden artian,
zure lan ori etzan izandu
iñorentzako kaltian;
iragarri bat jarriko nuke
zure etxe-paretian,
Aita Murieta nolakua zan
kontun erori gaitian.

12/ Aita Murieta, gu utzirikan
aldegin dezu mundutik,
gure Jainkuak eramán zaitu
geio ez supritziatik;
eta nik auxe eskatzen dizut
biotzan erdi-erdiatik:
iñoiz premian arkitutzian
lagun gaitzazu zerutik.

(Príncipe de Viana, 1966, X)

AMORIOZKO BERTSOAK NESKA TA MUTILLA

1/ *Mutillak:*

Maritxu, emen nator
gaur e zuregana,
nere biyotzak dauka
onelako lana;
aspalditik badakit
formala zerana,
eta egingo al degu
itz erditxo bana?

2/ *Neskak:*

Joxe, etortzen leno
nik zaitut ikusi,
zerbait nai al zenduke
gaur adierazi?
Orretzek egingo dit
neri milla grazi,
entzuteko nago ta
bertatikan asi.

3/M.: Ni basarriyan nago
bakar-bakarrikan,
eztaukat inortxoren
nik laguntzarikan;
gabetan kasik ezin
egin det lorikan,
eta ez al daukazu
zuk errukirikan?

4/N.: Berriz ere emen det
izketako txanda,
zurekin konpontzia
gaur e naiko lan da;
zure izerdi dana
bestek eramanda,
nik zer egin bear det
baserrira juanda?

5/M.: Nere aiton-amonak
emenguak zian,
goxoki bizituak
basarrin zartzian;
auxen esan ziraten
aik eriotzian:
«I ere bizi adi
emen ezkontzian!»

6/N.: Amoriyoz izketan
zu zera asita,
ezin alaitu neike
ola ikusita;
noiznai egin zaidazu
onera bixita,
baña ni ez naiz juango
kalia utzita.

7/M.: Urte batzuk pasata
badator zartzia,
ez nuen pentsatzen zu
ola portatzia;
biotzaren erdian
sartu dit iltzia,
auxen da amoriyoz
penetan iltzia!

8/N.: Etzaidazula esan
orrelakorikan,
gaur baserrian ezin
bizi gazterikan;
etorriko baziña
ori utzirikan,
konponduko giñake,
eztago dudikan.

9/M.: Errez esaten dezu,
Maritxu maitia,
nai dezu au utzita
zugana juatia,
jaio nitzan etxeai
atzea ematia;
ortik etorri leike
guretzat kaltia.

10/N.: Auxe baldin badegu
guretzat kaltera,
laster jarriko dizut
oraintxe aukera:
baserria utzita
etorri kalera,
maite baldin banazu
etorriko zera.

11/M.: Auxen da bi bide ta
biyetan supritzen,
biotzetik esan da
eztirate aditzen;
zure maitasun ori
asi da urritzen,
maite nazunik ere
etzait iruditzen.

12/N.: Nik kalea nai nuke
ta zuk baserriya,
konpondu ezin gerala
nago igarriya;
jarri nai gendukenak
bizitza berriya,
neroni're penakin
ondata naiz iya.

13/M.: Auxen da poza neri
eman dirazuna,
orain ikusten dizut
ain biotz biguna;
nere biotzak dauka
gaur argitasuna,
esaten asi zera
desiatzen nuna.

14/N.: Biok apartatzia
biontzako kalte,
alperrik zertan pasa
orrenbeste urte?
Nik e biotzetikan
asko zaitut maite,
baserrira juango naiz,
lasai egon zaite.

15/M.: Zer egin eztakit nik
orain pozarekin:
laister ezkondu eta
nere andriarekin!
Basarrian lan egin
biok alkarrekin,
zenbat egin diteke
maitasunarekin!

16/N.: «Basarritik kalera
etorri nigana»,
zu probatzeko izan da
len esan dedana;
maitasuna da gauz bat
ikusten eztana,
nik ere asko nai dizut,
maitetxo laztana.

17/M.: Orain arte biotza
salto ariñian,
zerbait esan nai eta
esan eziñian;
samintasuna juan da
maitetasunian,
ezkonduko gerade
zuk nai dezunian.

18/N.: Alaitasun oberik
eztaukat iñundik,
maitasun ugariak
badatoz zugandik;
orain mugi gaitezen,
sasoi da oraindik,
pamelia ugaritzen
zartu baño lendik.

* * *

19/ Jose eta Maritxu
ala ezkondu zian,
amoriyua biak
zuten biotzian;
pamelia azitzen
senarren etxian
biziko al dirade
denbora luzian.

20/ Kanean zan neskatxa
juan zan baserrira,
berak maite zuana
zegoen tokira.
Ia, neskatx gaztiak,
jarri gaur begira:
maitasun gozoakin
antxe bizi dira.

ELIZONDO'KO JAIA

1/ Ilbeltzak amabosta
igande eguna,
Elizondo ortara
salto egin deguna;
beste iru lagunekin
nintzan aruntz juna,
ai zer egualdia
tokatu zaiguna!

2/ Goizian Donostia'n
autobusa artuta,
zortzietako giñan
barruan sartuta;
goizian seietako
oitik altxatuta,
amarretako iritxi
piskat gosetuta.

3/ Gu aruntz juaterako
gizon bat zeguan
kamio-baztarrian
gure esperuan;
artu ta ostatura
eraman giñuan,
bapo gosaldu gendun
alkarren onduan.

4/ Otza aundia zegon
egunsentitikan,
alare juan giñan
aruntza pozikan;
Elizondo'n eztago
lagunan faltikan,
ondo portatzen dira
oik aspalditikan.

5/ Uztapide, Lasarte
ta Lazkao-Txiki,
zein izandu giñaden
goguan eduki;
Arozamena oiekin
moldatzen da egoki,
alkar zirikatuz
aitu gera ederki.

6/ *Antxitone*'ko ostatun
gendun bazkaria,
jateko naikua ta
dotore jarria;
zopa bikañarekin
ondoren jakia,
juaten dan guzientzat
badago tokia.

7/ Bazkaldu gendunian
lanera juateko,
denbora izan gendun
lasai egoteko,
kafe ta kopatxua
artu bitarteko;
Klemente zan giari
noiz jua esateko.

8/ Izeta jauna gendun
lan danak berritzen,
orrek asko daki ta
ni ez naiz arritzen;
oien onduan pozik
gera ibilitzen,
ta Klementek zizkigun
puntuak jarritzen.

9/ Plazan bazan jendia
asko etorria,
nunbait e bazeukaten
bertso-egarria;
guk ere egin gendun
al gendun guzia,
alare euskararentzat
ezta geiegia.

10/ Ordu t'erdi inguru
aritu giñanak,
egiñ arte agindu
zizkiguten lanak;
Izeta ta Klemente
agintzeko juanak,
pozik egin giñuzen
esandako danak.

11/ Elizondo'ko jende
ta ingurukuak,
egun artan poliki
aruntz juandakuak,
urtez elduak eta
gazte sasoikuak;
oraindikan badaude
gure modukuak.

12/ Oik jarri zuten jaia
etzan berriketa,
gu ere ola pozik
juaten gerade-ta;
nola agindu biar dan
ondo dakite-ta,
gora Klemente zarra
ta lagun Izeta!

(Príncipe de Viana, 1967, IV)

AUR GALTZE EDO ABORTUA

1/ Gaur gorabera aundi xamarrak ikusten dira munduan, eta kristabak jarri gaitezen oraintxe erreparuan: aur txiki batzuk kulparik gabe jaio baño len galduan, atsegiñetan ibiltzearren bata bestian onduan.

2/ Zer kulpa dauka aur txiki batek modu ortan tratatzeko? Mundu ontara jaio bearra bire erdin ondatzeko? Gure Jainkuak egiñak gera danok alkar maitatzeko, ta eztaukagu eskubiderik bestei bizia kentzeko.

3/ Bat izan leike ezkondu zarra,
bestea ezkon berriya,
danak berdintsu saiatzen dira
aurrari kentzen biziya;
beste batzuek eztutelako
pena bat izugarriya,
ondo pentsatzen jarri ezkerro
au mundu negargarriya!

4/ Mundu onetan gauza orrekin
bada naiko zalaparta,
bide ortikan jokaturziak
gauz onikan eztakar-ta;
bestela ere naiko lan bada
kontuk ondo aterata,
erruki pixkat izan dezagun
danok kristabak gera-ta.

5/ Eztakit nola ausartzen diran
gauza oiek egitera,
nunbait aurrikan ez ekarri nai
beren pameli tartera;
esaten dute «Gero're bada
orretarako aukera».
Ezin al leike okerra egin
baña len kontuk atera?

6/ Zorionian onuntz datorren
aurtxo txikia galtzen du,
zer egiten dun eztakiala
mirabe bat ondatzen du;
nola liteke guraso batek
bere aurra ola atzendu?
Anima aparta, txakurrak ere
bere umia maitatzen du.

7/ Elizak ere jakinda dauzka
orain dauden kontu orik,
anima nola salbatu leike
ola bizia galdurik?
Pentsatzen nago mundu onetan
gabiltzala argaldurik,
bestei bizia ola kentzeko
eztegu eskubiderik.

8/ Eztet esango guraso zarrak
etzuten pekaturikan,
baña apenas ibilli ziran
orrela jokaturikan;
mundu-aldia igaro zuten
aur-mordoxka azirikan,
aborto-kontun aiek etzuten
kontzientzian kargikan.

- 9/ Gaur ezaguera dutenerako
asi nai dute lanian,
nunbait odolak beroak eta
geldi ezin egonian;
ala moduzko laguntzalliak
dituzte aldamenian,
gero komerik etortzen dira
okerra egin danian.
- 10/ Beren ustetan ori eginda
gertatzen dira abillak,
orrelakorik egin gabetan
bear genduke umillak;
kulparik gabe jaio baño len
zenbat ote dira illak?
Zenbat osasun galtzen ari dun
droga gaizto ta pastillak!
- 11/ Lenago etzan gure artian
orrelakorik izaten,
estranjerian baziradela
jendiak zuan esaten;
aurra galduta aman bizia
arriskatuaz ematen,
aurrerapenak mundu onetan
ara zer ekarri duten.

12/ Anai-arrebak, pentsamentuan
pixka bat jarri gaitian,
olako okerrik eztedin sortu
geiago gure tartian;
utzi zaiogun aur gaxuari
onera etorri artian,
seme-alabak sortu ditezen
Jaunaren borondatian.

13/ Badakizute, askorentzako
gazterik da ezkontzia,
ta onena da len bezelaxe
goxo-goxo konpontzia;
Jaunaren bidez eraman beti
artutako gurutzia,
baña mesede egin zazute
aurrikan ez galdutzia.

14/ Sarritan asko pentsatu gabe
bat eldu da ezkontzera,
ta aurtxo ori zuria dala
konturatutzen al zera?
Kulpik gabeko aingerutxua
etzazu utzi galtzera,
beso zabalik artu ezazu
datorrenian etxera.

15/ Aurrerapen oik etorri dira
jakin detanez kanpotik,
Euskalerrian jarrai dezagun
okertu gabe lengotik;
etzagun bire txarrikan artu
gure utsegiñagatik,
aurrak eztauka zertan ordaindu
besten atsegiñagatik.

16/ Nik ondo dakit, tiratzen gaitu
aragi txar orren griñak,
aurreko pozak ekartzen ditu
gero oñaze ta miñak;
guraso on da zintzo izaten
egin beti alegiñak,
zerbait e gaizki itzegin badet
barkatu nere utsegiñak.

ON FRANZISKO APAIZ OSPETSUARI

1/ Bertso batzuk jartzeko
asmua artu det nik
baña ezin alaitu
iñola barrendik;
On Franzisko il zaigula
ni nago jakiñik,
sekula eztet artu
oinbesteko miñik,
oraindik ere nago
siñistu eziñik.

2/ Lesaka'n jaiua zan
juan dan gizaldiyan,
ezagutzen genduna
Naparru guziyan;
biotz zabalekua
aingerun neurriyan,
alako irripar bat
beti arpegiyan,
zenbat maitatzen gendun
jaio zan erriyan!

- 3/ Orain larogei ta amar
urte zu mundura,
zenbat aldiz etorri
zait neri burura!
Kapellau sartu ziñan
mojan konbentura,
bizirik artua zun
santuan itxura,
argatik eraman du
Jainkuak zerura.
- 4/ Denborak baño leno
bukatu karrera,
jakinduriz bazendun
gaztetan aukera;
gero urte beteko
Erroma aldera,
andik onuntza berriz
meza ematera,
arnasa degun arte
oroituko gera.
- 5/ Lenengo destinua
Lesaka politan,
besteren onagatik
beti izerditan;
ibilli-aldi pranko
gure baserritan,
ondo ezagutua
emengo menditan,
amaika meza emana
San Anton'go ermitan.

- 6/ San Anton'en jaietan
zuk meza emanaz,
urruti dago eta
juaten ezta errez;
penitentzia egiñaz
mendiz-mendi oñez,
jayik utsegin gabe
jakindu dedanez,
pentsatuta bat lertu
liteke negarrez.
- 7/ Gero Lesaka'tikan
Zugarramurdi'ra,
andik ezta asko palta
Prantzi'ko alderdira;
urrena berriz Eliz-
ondo'ko errira,
baña biotza zaukan
Lesaka begira,
denboraz etorri zan
jaio zan tokira.
- 8/ Lesaka'ko komentu
polit ta ixilla,
kapellau bat nai zuten
ona ta umilla;
superiora juan zan
obispuan billa,
On Frantziskori eman
komentuko silla,
iñundikan al bada
etorri dedilla.

- 9/ Ordun etorri eta
oinbeste urtian
zer pozik egon geran
Lesaka maitian!
Ura nolakua zan
kontura gaitian:
liburua eskuan
komentuko atian,
erriari lagunduz
il dan bitartian.
- 10/ Begira, On Frantzisko,
erritar batek gaur
biotza zuregana
dakarki txit samur.
Zertako asarreak
errita ta mutur?
Guk ere eriotzari
badiogu bildur,
erri danak negarrez
egin dizu agur.
- 11/ Lau apaizek eraman
zuten bizkarrian,
jendea atzetikan
erdi negarrian,
arentzat maitasuna
zefon indarrian;
gero meza ematen
zazpi aldarian,
ondoren sartu zuten
Jaunaren lurrian.

12/ On Frantzisko, zu beti
ona ta leiala,
zar eta gaztientzat
beti zan apala;
ill eta utzi digu
betiko itzala,
Jaungoikuak bazakin
ori ona zala,
eta bere glorian
eduki dezala.

13/ Zu bezela gu ere
Lesakarrak gera,
gaztetan etorriak
Gipuzku aldera,
baña zuk bezelaxe
maite det euskera;
Jaunak laguntzen badit
piska bat zartzera,
Lesaka'ra joan nai det
ezurak uztera.

14/ Noizbait ere bear ta
oraintxe azkena,
erritik jua zaigu
gizonik onena,
Jaunak eman zaiola
betiko atsedena;
ta azkenik auxe da
eskatzen detena:
kale bateri eman
beraren izena.

(Príncipe de Viana, 1970, III)

MUSEKO KONTUAK

- 1/ Denbora jua eta
egunak pasian,
gure antzeko geio
len ere bazian;
lengo oitura jarrai
dakigun klasian,
alkar zirikatuz
ai gera musian.

- 2/ Astiaren erdian
degu osteguna,
musera jua gabe guk
uzten ezteguna;
larunbatean berriz
ta igande eguna,
antxen biltzen gerade
kuadrilla txukuna.

3/ Eoskorrak dexente
or biltzen geranak,
euki, tira edo bota
muserako lanak;
batzuek badauzkate
oso onan famak,
aiek dira galduta
juaten diranak.

4/ Erregiak botata
lanera kolpetik,
iñork eztu argitzen
orduntxe kopetik;
adarra-jotzalliak
badira kanpotik,
galdutzian burlaka:
«Aldegin zak ortik!»

5/ Kuadrillako zarrena
esango lenbizi:
Antoniyo musian
nork eztu ikusi?
Ikaratuta eztu
egingo igesi,
dakiguna arekin
guk gendun ikasi.

6/ Orren ondotik berriz
datorkit bikua:
Migel Balantxa eta
Austin Erdikua;
arrapatzen badute
beren neurrikua,
miatuko diote
ondo gerrikua.

7/ Joxe Mari Auxua ta
Manuel koñadua,
musian jokatzeko
bikote ondradua;
galduagatik iñoiz
jokuan mordua,
tripan daramakite
galdutako ardua.

8/ Muñagorri'k ere or
izaten du astiya,
gurekin pasatzen du
illunar guztiya;
beste bat Gabriel da,
guretzat *Piztiya*,
nundik sortu ote zan
olako egaztiya?

9/ Benito Akan eta
Balantxa'ko Joxe,
gustora aritzen da
musian uraxe;
eun tanto jotzen ditu
ordo bezelaxe,
besteak zerbait baña
gogorra dek auxe.

10/ Pernando eta Anton
ezta berriketa,
oik e gure tartian
aitzen dirade-ta ;
aurretik Oiarbi'ra
makiña bat buelta,
gero berriz musera
sagardoz beteta.

11/ Palta zaizkit Rikardo
eta Jexux Mari,
gaztiak izateko
jokatuk ugari;
aitzakia botatzen
bata bestiari:
eztiote obeitzen
aitona zarrari.

12/ Ardo pixkat edanez
musen jokatzera,
iñor ezta etorri
ardua galtzera;
bestela izanagatik
anaien antzera,
irabazita danak
juan nai etxera.

13/ Ogei ta zortzi pezta
ardo-baliyua,
ura zeñek ordaindu
da gure sayua;
ogei ta amaikarekin
pozikan keñua,
ola jokutzen degu
botilla ardua.

14/ Alkar engañatutzen
ori da jakiña,
beti irabazi nai
ta ori eziña;
auxen da galdera bat
jatorra ta piña:
zein ote da kuadrillan
egoskor aundiña?

15/ Asteko kontu batzuk
alkarri kontatu,
okerrik baldin bada
ez zuk gaizki artu;
trago batzuk egiñaz
musian jokatu,
egiten dan gauzikan
ezin da ukatu.

16/ Zortziak alde ortan
etxetik irtenda,
ni bezela kuadrilla
guzia juaten da;
goiz dalako ustian
berandututzen da,
baña ordu pare bat
ondo pasatzen da.

17/ Lan ortan ezta aritzen
iñoiz izerditan,
bullak izaten dira
iñoizka alditan;
bañan ari bagera
bulla ta erritan,
arduaren kulpa da
irutatik bitan.

18/ Txoko ori daukagu
guk oso maitia,
gustatu egiten da
pixkat edatia;
asko sartu ezker
guretzat kaltia,
kosta egiten baita
gero eramatia.

19/ Alkarri kulpa bota
an biltzen geranak,
batzuk asko edanda
beste batzuk famak;
putzu batzuk badira
etxera eramanak,
zer dan probatuko du
aruntz juaten danak.

20/ Ostatu txiki bat da
juaten geradena,
aundi-nai ta olakorik
ezer eztuena;
broma pasatutzeko
gutzat jatorrena,
Ernani'ko partian,
Karabel du izena.

AZKARATE ETA ATANORI

1/ Zu, Azkarate, orain artian
sei urtian txapelduna,
nik bezelaxe bizi geranok
ondo ikusi deguna;
bañan geiago zan aurten noski
Atano zure laguna,
txikia izan arren gorputzez
badauka aunditasuna.

2/ Ai, Azkarate, orain artian
etzera izan motela,
pentsatu zuri begira erotzen
egon izan geradela;
aurten ordea izandu degu
Atanorentzat txapela,
galduagatik portatu ziñan
gizon jatorra bezela.

3/ Telebistatik ikusi nuan
auzo-etxe batetikan,
zortzi ta utsa jarri ziñan zu
Atanoren aurretikan;
«Berreun ogeiri!» oiuka danak
Azkarate'n aldetikan,
jipoi aundia artuta juanak
badira Donosti'tikan.

4/ Zuri, Atano, esaten dizut
nola baizeraden piña:
egun orretan saiatu ziñan
irabazten alegiña;
oien aldian txit zu gorputzez
izango zera txikiña,
baña bakarka jokatutzeko
pelotaririk aundiña.

5/ Zure osaba sillan onduan
zuri konsejuk ematen,
bera txapeldun len izana da
eztakit zenbatxu urten;
gaztiak baña zarrak geiago
askotan dute jakiten,
ta berriz ere saia zaitia
aren esanak egiten.

6/ Irabaztunak pozakin eta
galdutakuantzat kalte,
sosikan eztet nik jokatu ta
penikan eztaukat bate;
egun goguangularria zala
askok esaten dirate,
baña onena zu zeradela
danak aitortutzen dute.

7/ Azkoitia'ko seme leiala
Atanotarren kastatik,
pelotarako griña eder ori
ekarri zendun gaztetik;
neonik ez nun ikusi baña
ala jakin det bestetik:
sari ederra eraman zendun
zure etxera Donosti'tik.

8/ Zoriona nik ematen dizut
oraintxe azkenekuan,
gaur bezelaxe jarraitu zazu
aurrera ere jokuan;
ikusten degu jarri zerala
gizon aundien lekuan,
ta txapel ori gorde ezazu
zurekin urte askuan .

(Príncipe de Viana, 1968, VII-VIII)

ELIZONDO'KO BAZTANDARREN BILTZARRARI

- 1/ Elizondo'n izandu
giñaden kantari,
poza ematiarren
antxeko festari;
goizetikan bazegon
jendia ugari,
gustua eman zioten
zar da gaztiari,
bertsuak pentsatu det
jartzia berari.
- 2/ Meza Nagusia zan
goizian aurrena,
ta eliza bete zan
puntaraño dena;
neroni sartu nitzan
pozikan barrena,
aspaldi ikusi dedan
mezik ederrena,
au da kristau zintzuak
egiten duena.

- 3/ Gero ondorenian
ziraden gurdiak,
antxen ikusi nitun
gauza egokiak:
perratzalleak eta
gañera eiztariak,
pelotariak eta
bai aizkolariak,
txondorra sutan eta
soldadu berriak.
- 4/ Ordu bietan gero
plazara juateko,
zerbait izango zala
denontzat jateko,
ta tarjetatxo bana
ara eramateko;
ardua're bagendun
naikua edateko,
ta Belaskoain'go ura
arduai nasteko.
- 5/ Bazkaria genduan
arbol azpi baten,
beñere ez nun ikusi,
lenengo nik aurten;
zenbat lagun giñaden
ezta errez esaten,
zazpireundikan gora
ala esan ziguten,
ai zér anaitasuna
Baztan'en daukaten!

- 6/ Bazkaria genduan
tortillakin asi,
esango det iñork e
nai badu ikasi;
ollaskua erreta
zegon bixi-bixi,
gero postria ere
izotz eta guzi,
an bezin kafe onik
ez omen da ikusi.
- 7/ Bazkaltzeko denboran
Peru Txiki izketan,
sermoirikan ezpalitz
bezela bestetan;
amaika itz egiña
len ere gaztetan,
batzutan kontu xarrak
ta gero txistetan,
ixilduko ez ote zan
negoen kezketan.
- 8/ Bazkaldu eta gero
txistulari onenak,
kanpotikan baziran
etorri zirenak;
oiek dira euskaldun
joko jatorrenak,
gure artian aztu
bear eztirenak,
pozez beterik antxen
egon giñan denak.

- 9/ Pepito Yantzi gendun
bere soñuakin,
beste lagun batzuek
baziran arekin;
zarrak ere kantari
beren lagunakin,
lagundutzen zioten
euskal kantarekin,
gustora egon giñan
danak alkarrekin.
- 10/ Elizondo orretan
izandu giñanak,
pozik egin giñuzen
esandako danak;
lenago're bazitun
Biltzarraren famak,
baña ezer eztira
lenoko esanak,
orain indarra artzen
ari du Baztanak.
- 11/ Gero ondorenian
gu bertsolariak,
antxen kantatu giñun
genizkin guziak;
aurreko aldian ziran
gure agintariak,
gutxiô eztu merezi
Baztan'go erriak,
ondo konpondu giñan
Klemente ta biak.

12/ Amabigarrenakin
nai nuke amaitu,
an izandako batek
emen jarri ditu;
egun eder batekin
giñaden alaitu,
orain biotz barrendik
nai zaitut agurtu,
berriz e, baztandarrak,
olaxe jarraitu!

(Príncipe de Viana, 1967, XI-XII)

KAMIOETAKO EZBEARRAK

1/ Ezbear asko dago
gaur kamiyuetan,
eriotza badago
bazar guztiyetan;
ezin kabitu gera
geren tokiyetan,
ibiltzen geralako
martxa aundiyan.

2/ Baimena baño geio
gabiltza martxian,
gero komeri txarrak
alako trantzian;
bati jo ezpadio
bestiai bultzian,
ezin gelditurikan
konturatutzian.

3/ Aspaldi ontan bada
naiko desgraziya,
kamiyua daukagu
odolez bustiyan;
eriotzak zabaltzen
ari du aziya,
kontuz ibilitzeko
artu pazientziya.

4/ Kotxia artu eta
aballa burura,
lenbiziko nai baitu
bere kotxe ura;
ekartzen degunian
kotxia eskura,
onenak geradela
egin nai itxura.

5/ Goizian erten eta
gero eriotzia,
kamiotikan dator
olako trantzia;
gauzak bururatzeko
ordua iritxia,
ez al genduke obe
kontuz ibiltzia?

- 6/ Zenbat iltzen ari dan
atera kontua,
ludi guztia dago
penaz ondatua;
berdin da kamioia,
kotxe ta motua,
amaika pamelitan
jarri du lutua.
- 7/ Batzutan bustia ta
bestetan illuna,
noiznai izaten degu
guk estuasuna;
martxa aundiak artu
galdurik zentzuna,
askotan garbitzen da
kulparik eztuna.
- 8/ Gauz au entzuten degu
igande ta aste,
eguneroko oiek
ekartzen dituzte;
nola garbitu diran
ainbat zar ta gazte,
kamiyuak iltzen du
kanzerrak ainbeste.

- 9/ Biar bezela egin
zagun otordua,
eta kontuz ibili
kopa ta ardua;
aurten ere jua zaigu
mundutik mordua,
bada eskarmentuan
sartzeko ordua.
- 10/ Etxetikan erten da
lanera pausua,
azkar ibilitzeko
seta bat osua;
gero il dala igual
etxera abisua,
ola ibilitzia
al da prezisua?
- 11/ Karneta ateratzen da
kostata ederki,
lenengo egunetan
poliki-poliki;
gero andikan bela
zanpatu galanki,
eskutan zer damakin
oraindik eztaki.

12/ Askok karneta ori
gaur eskuratuta,
jayian joaten dira
lagunak artuta;
kotxe berriarekin
pixkat arrotuta,
ortxe gelditzen dira
bizia galduta.

13/ Ainbeste gorabera
gaur kamiyuetan,
jendea deika ari da
toki guztiyetan;
zer negarrak datozen
gaur pameliyetan,
kontuz ez geralako
ibiltzen jayetan.

14/ Nai dana egiterik
kotxian eztago,
baztarra jotzen baita
gero ta errazago;
ogei urte bueltaka
ibilia nago,
ta bildurra dadukat
gero ta geiago.

15/ Errespetatutzeko
jarria bidia,
zabarrak diradenak
dexente badia;
beren eskua utzita
gero jua erdiâ,
amaika aldiz iltzen da
kulparik gabia.

16/ Danak eztira izaten
martxa aundiatik,
pallua izan diteke
tornillo batetik;
ala erortzen dira
buelbaka biretik,
eguneroko ogia
ekartzeagatik.

17/ Gaur kamio oietan
dago gurutzia,
komeni zaiguna da
kontuz ibiltzia,
Jaunak bizia eman
ta ori goxatzia;
pena izango litzake
birian galtzia.

18/ Ordua iritxi da
lanak bukatzeko,
naikua izango da
esplikatutzeko;
nere burua eztaukat
santutzat jotzeko,
esan nai nukena da
kontuz ibiltzeko.

TXANTXANGORRIA

1/ Txori txiki polit bat
ezagungarriya,
Jaunak mundu onetan
guretzat jarriya;
bire-baztar guztitan
azaltzen da iya,
bakarrikan bazuaz
zure gidariya,
beti olakoxia
da txantxangorriya.

2/ Kristabari laguntzen
goiz ta illuntzian,
txio ta txio dabil
birian ertzian;
pixka bat ixiltzen da
sasira sartzian,
bañan azaldutzen da
iñor gelditzian,
gustora artzen baitu
zerbait botatzian.

3/ Ain dira polit eta
ain dira txukunak,
eiztarien tartian
dituzte jardunak;
tirorik gabe pasa
badira egunak,
txantxangorriai tira
eiztari lizunak;
or ere pagatzen du
kulparik eztunak.

4/ Udaberrin kabia
pozik du asitzen,
bire-pendoitz batian
goroldio biltzen;
kuku zarrak arraultza
or dio jarritzen,
txikia izanagatik
ezta errukitzen,
gixaixuak ederki
ikasten bizitzen.

5/ Arraultza jarri eta
aldegin igesi,
bestek lanak eginda
bera lasai bizi;
txantxangorrin beruan
jaio eta azi,
gero zer egiten dun
nai bada ikasi:
ume txikik botata
kukua nagusi.

6/ Bere umiak utzi ta
kukuai lagundu,
udaberrian orrek
naiko lan egin du:
bere oia emanda
ondoren mantendu,
al dun tokitik jana
arentzat biltzen du;
or ere exkaxenak
geiena supritzen du.

7/ Txikia izanagatik
badaki aunditzen,
gaitzetsa izanagatik
eztio utzitzen;
egun guzia pasa
jateko karraitzen,
bera goseak eta
auzua serbitzen,
bestentzat lan eginda
gaixua supritzen.

8/ Txori piñagorikan
beste bat eztago,
orrek erakusten du
gero ta geiago;
berak lana eginda
goseak naiago,
bera bakarrikan
luke errezago,
kristabak asko gera
oi baña txarrago.

- 9/ Uda ta negu beti
or dabil kantari,
illuntze aldera beintzat
kantatzen ugari;
begiratu zaiogun
zarran esanari,
lepo azpian ditun
luma gorriari,
itxuaren argia
dala diote ori.
- 10/ Txantxangorria, nator
gaur zure kabira,
aldamenetik nago
arraultzai begira;
supritzeko jaiua
ziñan gizaldira,
lengo zarren esanak
bikañak badira,
gezurra zala uste ta
biurtu egira.
- 11/ Gauz au nola izan zan
ari naiz esaten,
mendira jua baintzan
lengo egun baten;
txantxangorrik ujua
egiten ziraten,
nunbait aiek laguna
mendan nai zuten,
neri txistua eginda
txitxaria jaten.

12/ Zeñen txintxua zeran
ondo badakizu,
zenbat oroitzen naizen
asko eztakizu;
erdi txoraturikan
zugan nabilkizu,
etzaitezela ibili
bildurta ta izu,
berriz alkartutzian
kaso egin zazu.

KALIFORNIA'KO BERRIAK
LEKAROTZ'KO
MIGEL BARAIBAR'EK JARRIAK

1/ Sor-lekutikan ateraraia naiz
orai duela urtia,
eta oraindik leku arentzat
badaukat borondatia.
Biotzetikan gogoratzen naiz,
o Euskalerra maitia!
Bertan gelditu izan banitzan
egingo nuen suertia.

2/ Amerika'ko berri batzuek
gaur bear ditut nik erran,
emengo berri ez dakienak
biotzez ikasi dezan.
Guretzat ezta leku onekin
fortuna aundirik izan,
itz baterako naiago nuke
Euskalerrian banitzan.

- 3/ Zakurrak ditut lagunak beti,
lan egiteko ardiak,
eta barrena urus-azteko
kuiotiaren irriak.
Pentsatu ola zuzen egoiten
lan badaukala buriak,
gisa oberik gabendanikan
pastuko dira guriak.
- 4/ Pena askotaz gogoratzen ta
zorionetik maiz utsa,
gusto egiten ezta errex
ogei urtetan gorputza.
Eta gainera artzainak dugu
pagamentu bat eskaxa,
mendi-zokoan beti bakarrik
ez bizi-modu urusa.
- 5/ Aurrera ere segi bear dut
bizi-modua kontatuz:
eguna nola pasatzen dudan
ardiak ezin yuntatuz,
aste pixka bat daukatenian
bertso batzuek kantatuz,
eta Yaunari bertze munduan
leku obe bat eskatuz.

- 6/ Euskalerritik etortzen dira
Amerika'ra artzaiak,
ta batez ere ardurenean
ogei urteko gaztiak.
Edade ortan lan aundia du
ola denbora pastiak,
gero gibelat itzuli bear
erdi burutik nastiak.
- 7/ Desgrazi oiek ez ikusteko
izaten dira obiak,
eskatu gabe etortzen dira
okerrerako bidiak.
Suerte aundirik eztu izaten
munduan gizon pobriak,
bainan ez dauka aunitz geiago
aberats buru gabiak.
- 8/ Orra oraingo nere bertua
Nafarroa'ko lagunai,
kasu sobera ez egiteko
Amerika'ko fortunai.
Sor-lekua ongi maitatu,
zeren aita eta amai,
nere lagunak, disgustorikan
ez baduzue artu nai.

9/ Bertso berriak ezarri ditut
ez yakinaren gañian,
yende gaztia etortzen baita
balin badago premian,
denbora dela yakin dezaten
arkitu gabe penian,
leku obeak bear direla
gazte sasoiko denian.

10/ Azken bertsoa kantatuko dut
pena guzien ondotik,
interesatzen diren yendiek
ikas dezaten gogotik.
Ama urruti ikusten dela
unet etorriz geroztik,
nai dan guzia saiatuta ere
eztu kenduko burutik.

(Principe de Viana, 1967, V)

BERTSO BERRIAK
MIKEL AROZAMENA'K
MIKEL BARAIBAR'I ORDAÑETAN

1/ Bertso berriak jartzera nua
ni Lekaroztar bateri,
bera asi da Amerika'tik
lendabiziko kantari;
begiratuak egiña naiz ni
bialdu zendun kartari,
zuk diozunez badadukazu
juandako pena ugari.

2/ Amerika'ko kontuen berri
jarri diguzu aukera,
zuk diozunez juañ zinañaden
txit oso leku txarrera;
emen e lana egiteko zuk
izango zenduan era,
urrena etxia utzi baño len
ondo kontuak atera.

- 3/ Esaten dezu: «Zakurrak ditut eguneroko lagunak, eta ardien lana orrekin daduzkat eginkizunak». Utzi dituzu zure etxeko goxoki ta maitasunak, biotzetikan triste bazaude zertako dira ondasunak?
- 4/ Ogei urtekin esaten dezu «daukat gorputza tristia», baño denboraz alaitu leike, oraindik zaude gaztia. Etzendun asko usteko zer zan aita ta ama uztia, supritu gabe ezin liteke iñola aberastia.
- 5/ Egun guzia pasatzen dezu ardiak ezin bilduaz, zuk diozunez gañera bizi zera asko suprituaz, Euskalerriko maitasun ori iñola ezin ornituaz; zer atsekabe izango'ituzun Baztan aldea oroituaz!

6/ Euskalerritik artzantzarako
zenbait gazte Amerika'n,
nik ere lengusuak baditut
aruntz juanak emendikan;
esaten dezu gero itzuli
zeren buruk nasirikan,
sosik ezpada ekarriko're
ez egin olakorikan.

7/ Aitortzen dezu aruntz juatia
ori dela desgrazia,
baña denari gustatzen zaigu
dolarren irabazia;
beste penarik eztadukazu
etxia ezin ikusia,
urrengorako nola ibilli
orain zaude ikasia.

8/ Bertso polit bat bialtze'iguzu
Naparru'ko lagunari,
eztezu asko usteko baña
istimatzen det ugari;
zu alaitzeko ementxe dator
Arozamena kantari,
maitetasuna beti diot nik
lagun jatorra denari.

- 9/ Bertso berriak jarri dituzu,
asko daude ezjakiña,
eta etxetik urruti juanda
gero izaten da miña;
Euskalerria pentsatu gero
guretzat dala egiña,
eta kanpora jua gabetanik
emen saia alegiña.
- 10/ Burutik ezin kendurik zaude
amatxo maitagarria,
eta juandako penaz or zaude,
ori nago igarria;
Naparrua'ko txoko polita
naparrarentzat jarria,
orreatikan maita dezagun
sortu giñaden kabia.
- 11/ Mikel Baraibar lagun jatorrai
Arozamena'k bertsuak,
zuk jarritako polit oriek
ementxe dauzkat jasuak;
ta berriz ere ordañak jarri
zabaldurikan besuak,
indar berria artu dezala
gure euskara gaxuak.

12/ Arozamena'k esaten dizu
orain azken-azkenian:
zu ikusteko gogua daukat
nere biotz barrenian;
osasun ona eramán zendun
emendik juan zñanian,
ta berriz ere ala ekarri
onuntza zatozenian.

(Príncipe de Viana, 1967, VIII)

KALIFORNIA'KO BERRIAK
BIGARREN ALDIZ

MIGEL BARAIBAR'EK
MIGEL AROZAMENA'RI JARRIAK

1/ Milla bederatzi eun eta
irurogei ta zazpia,
bertso berriak jartzera nua
izanagatik gaztia;
azkenak ontsa botatzekotan
obe da zuzen astia,
gure Jainkoak bedeinka dezan
eguzkiaren azpia.

2/ Lengo bertsuen asmoz nituen
pena batzuek agertu,
oraindik ere zer esanikan
ni egiten naiz arkitu;
bakardadean dagon tristiak
non pentsatuak baditu,
biotzak duen naigabe ori
barrenak ezin kabit.

- 3/ Lagun maitiak, tristura degu
komeni etzaigun gauza,
orien berri ez dakienak
ontsa goguan ar beza;
zentzurik duen gizona ala
nundik daiteke urusa:
biotza Euskalerrian eta
Ameriketari gorputza?
- 4/ Gaurko Migelen bertso berriak
ez dakarkite kalterik,
nere ondoan ez izanta're
nik zoritxarra bertzerik;
egun guzia ardiaren zaintzen
malurusikan pasturik,
geienak infernurako dira
guk ezpadegu zerurik.
- 5/ Gure onduan beti dabilta
kuiote eta leonak,
orain bitarte gu ez giñaden
oien artian egonak;
naiz sinestia lana badaukan
ok entzutian gizonak,
berri oberik ezin igorri
leku txarrian dagonak.

6/ Nere iderak aitortzeko dut
nik borondate guzia:
eztaukatela Euskalerrria
alde batera utzia;
mundu untako ilusioa
nola or dudan asia,
berriz orrarat itzuli nai det
akabatzera bizia.

7/ Guk badakigu urrun gaudela
familiaren ondotik,
oi pentsatzian nigar-erreak
etortzen zaigu begitik;
urte batzuek Ameriketan
ola ibiliagatik,
eriotzian atera nai det
Euskalerrriko atetik.

8/ Bertze gauza bat aipatuko dut
nik asi deten bertsuak:
bertsoak nola jarri nituen
len ere gaurko kasuan;
aien ordainak Arozamena'k
bialdu dazta lenguan,
zedorrek ezin pentsatu dezu
zenbat pozturik naguan.

- 9/ Arozamena, eskerrik asko
nere oraingo aldian,
guk ikusiko al degu elkar
laister egunen batian;
Jaungoikoari eskatzen diot
biotza bete-betian,
gu osasunez egon gaitezen
elkar ikusi artian.
- 10/ Bertso auekin agortzen ditut
dauzkadan borondatiak,
ta naigaberik geiena dauka
azkenaren ematiak;
barkatzizue ez yakinian
egin baditut kaltiak,
ontsa bizi ta ikusi arte,
anai-arreba maitiak!

(Abendua, 1967. *Príncipe de Viana*, 1968)

**MIKEL BARAIBAR'ERI BIOTZEZ
MIKEL AROZAMENA'K ORDAÑETAN**

1/ Zu asia ziñaden
ortikan langintzan,
eta ara geroztik
nolatan gabiltzan;
ondo mintzatu zera,
bildurrik ez izan,
ni're portatuko naiz
lagunaren gisan.

2/ Pena azaltzen dezu
biotzan erdira,
ori egindakuak
geiago badira;
berriz itzuli zaitez
zu zure kabira,
etxeko sendi danak
goxatuko dira.

3/ Biotzak daukan pena
zuk ezin azaldu,
pixka alaitzearren
ordaña bialdu;
etorriko zera ta
Jainkuak nai badu,
itxaropenik beintzat
etzazula galdu.

4/ Gorputza Ameriketan,
biotza etxian,
gaur baño lenago're
gertatutzen zian;
gurasuak utzita
emendik juan zian,
aien goxotasuna
berriz etortzian.

5/ Maitasuna bizitzak
dizu erakutsi,
beñere etzazula
bizimoduz etsi;
euskara maitatzia
eztu egin gutxi,
urruti egon arren
lenguari eutsi.

6/ Ontaz oroitzen zera
ortikan gogotik,
aldegin dezulako
etxeko salletik;
negarra erortzen da
begi bietatik,
aldegiten danian
amaren ondotik.

7/ Naparrua'n jaio ta
Naparrua'n azi,
bizimoduan berri
nai zuan ikasi.
Zertako jua ziñan
emendik igesi?
Txanpon gutxiagokin
ezin al da bizi?

8/ Danakin asmatutzen
nola ezta errez,
urrutiko intxaurrak
gerora baterez;
aman ondotik jua
beterik naigabez,
orreatikan zaude
ortikan negarrez.

- 9/ Etxea izaten da
aztutzen eztana,
beti gustora izaten
munduan gaitz-tana;
auxe eskatzen dizut,
Migeltxo laztana:
azkar etorri zaitetz
ortikan Baztana.
- 10/ Bertsuak ondo jarri
ta pulamentuan,
ura poza nereaa
ikusitakuan,
nola bizi zeraden
aditutakuan!
Bizitzen ikasten da
supritutakuan.
- 11/ Bertso polit batzuak
ortik bialtzeko,
neri biotza lertu
zuri ordaintzeko;
auxe eskatzen dizut:
onuntz etortzeko,
gogua badadukat
zu ezagutzeko.

12/ Lekaroz'ko semea
ukatu eziña,
egun bat badet ortxe
bertsotan egiña;
naiago nuke azkar
bilduko baziña,
zuri besarkatzea
nere atsegiña.

13/ Naigabe aundi batzuk
dauzka barrenian,
biotzan sartu eta
kendu eziñian;
barkatzeko esanez
azken-azkenian,
ori da ibiltzea
gizatasunian.

14/ Bertsuetako lanak
azkena dakarte,
noizpait izango gera
gu biok alkarte;
beti etzaitez egon
emendik aparte,
agur, Mikel maitea,
zuk nai dezun arte!

EIZEKO KONTUAK

1/ Lagun maitiak, esan nai nuke
eizakin gertatzen dana,
garai batian izaten gendun
ibiltzeko afana;
gaur alperrikan ibilaldia
ta egiten degun lana,
etxetik irten gabe egon leike
txanponikan eztaukana.

2/ Len urtian bein egiten gendun
nora edo ara bisita,
baña oraintxe jarriak gaude
iya betiko etsita;
lenago libre zauden tokiak
dauzkagu galerazita,
ara zer gauzak etortzen diran
alkar ezin ikusita.

3/ Erri geienak jarri dituzte
uso-tokiak saltzen, da
lenago zegon askatasuna
orretatikan galtzen da;
naiko txanpona daukan gizona
ederki dibertitzen da,
nere moduko mixerabilia
etxian gelditutzen da.

4/ Lenago libre izaten ziran
zelaia eta mendiya,
bañan orain zer gertatutzen dan
nik esango det egiya:
nunai ibiltzia galerazi,
kendu digute tokiya,
soldatatikan bizi danantzat
ara istillu gorriya.

5/ Ara, lagunak, nola izaten
dan eizerako kontua,
une ederrik denbora baten
nik e badet pasatua;
orain garezti kartutxua ta
gañera ordaindu kotua,
len erdi ipurdi gabiltzanantzat
oi dago debekatua.

- 6/ Iñoizka juanda neroni ere
ibilia egiñala,
ondo dakigu utsaren truka
asko nekatzen giñala;
guk badakigu kastuak jota
doble kostatzen dirala,
ez al dakizu gustoko tokin
aldaparikan eztala?
- 7/ Denbora baten Euskalerrria
guztia eizaz beterik,
ordun etzegin Euskalerritik
beste iñora juaterik;
zugaitz ederrak eta mendian
etzegin uso-paltarik,
gaur bertan arrapatzen danetik
eztago ezer jaterik.
- 8/ Uso-denbora baño lenago
tortolak ziran aurretik,
amaika aldiz juanak gaude
bizi giñaden etxetik;
kartutxo onak erosi eta
pronto jarriak aurretik,
pamelirako mokadu batzuk
arrapatutziagatik.

- 9/ Oker ok danak etorri dira
beartsuaren kalteko,
eta denbora iritxi zaigu
egi batzuk esateko;
koto ederrak jarri dituzte
aberats batzuk juateko,
lagun artian dibertituta
mokadu onak jateko.
- 10/ Emen pasia ordaintzen bada
etzaiote ajolika,
bosteun pezeta kastatu eta
dana alper-alperrika;
len bezelaxe ibili bear
etxe onduan korrika,
Santiyomendi alde orretan
zozo zarrari segika.
- 11/ Utsa litzake zerbait eginda
orrenbeste ordainduta,
badakizute paserik gabe
dagola debekatuta;
eskopeta're kentzen digute,
gero ondotikan munta,
ezkera errez eskarmentatzen
orrenbeste suprituta.

12/ Nik e iñoizka Donosti aldera
egin izan det bisita,
inbiri piska pasa ere bai
sorta oiek ikusita;
emen xoxo bat ezin il degu
goiz-goizetikan asita,
berriz ere jan biarko dira
Bretxa aldian erosita.

LEITZA'KO OSABA MIGELERI BERE ILLOBAK

(Doñua: *Aizak i, Manuel mañontzi...*)

1/ Orain iñundik al bada
jo nai nizuke aldaba,
nere eztarriyan ezpada jartzen
ainbesteko traba;
pasa egun eta gaba,
neretzako oso ona da,
gerra aundirik ezta izango
txarragoik ezpada.

2/ Leitza orretan sortua,
ezta oraingo kontua,
irurogei ta amabi urte
dago kunplitua;
lanan asko saiatua,
gañera asko supritua,
orrelakoxe osaba batek
badu meritua.

3/ Urte oiek izanikan
eztu nagitasunikan,
mendira gogoz aldatutzen da
goizen jeikirikan;
batere eztago dudikan
eztala gauz oberikan
mendi gañeko aize gozua
bezelakorikan.

4/ Bostak aldian jeikita
gogoz juaten da Kornitâ,
osasun ona kontserbatzeko
oberik ezpaita;
xixa biltzen ibilita,
gero etxera etorrira,
neronek ere jan izan ditut
arek ekarrita.

5/ Olaxe egunsentiyan,
gañera udaberriyan,
zeñen pozikan ibilitzen dan
osaba mendiyen!
Xixa batzuan guardiyan,
gero etxera eguardiyan,
esan liteke bizi zerala
Jaunaren gloriyan.

6/ Mendiya dezu zuk maite,
ezpaitu egiten kalte,
oso ona dala sendagilleak
esaten digute;
deskuidorik eztaukate,
zu oraindik zaude fuerte,
txarra izan balitz nola arrapatu
orrenbeste urte?

7/ Ain baitu biotz maitia,
danentzat borondatia;
etzaio ari gustatu izan
gezurra esatia;
ortikan dator kaltia,
gizonan errematia;
osaba maite, lengo biretik
ibilli zaitia.

8/ Gazte-gaztetik lanian,
beti mendian gañian,
mandazai ere ibilia da
sasoi onenian;
eguna umore onian,
bestietan eziñian,
Jaun Zerukoak laguntzen zion
estuasiunian.

9/ Gaur bizi zera pozetan
zu jaioterri orretan,
berak orixe aitortutzen du
biziro benetan;
len egunero lanetan
gorputzarentzat neketan,
egun ederrak etorri zaizka
txarren ordañetan.

10/ Lenago zifnana gazte,
nik e orixen det uste,
osasun onez pasa dituzu,
zertako egon triste?
Ementxen bat eta beste,
zure urteak ainbeste,
nai duten danak mundu onetan
izan eztituzte.

11/ Osaba, entzun zaidazu,
illobak esaten dizu,
maitetasunez jarriak dira,
ori badakizu;
gorrotorik eztaukazu,
ain ona baizerade zu,
ezer okerrik egin badizut
barkatu biazu.

12/ Juana naiz urte askotan
zurekin egotekotan,
une ederrak pasa ditugu
gu biok prankotan;
aurten ere ez nago lotan
juan gabe gelditzekotan;
Jaunak nai badu, or izango naiz
San Tiburtziotan.

ZIKUÑAGA'KO AMARI

- 1/ Zikuñaga'ko Ama
dago Ernaniyan,
gurasuak jarriya
juan dan aspaldiyan;
bertso batzuk jartzeko
orain naiz abiyen,
Ama, lagun zaidazu
banago premiyan.

- 2/ Ermitatxo polit bat
dana arrizkua,
ernanitarrentzako
baita guztizkua;
Ama goxo bat dago
arrigarrizkua,
ori kendutzia da
negargarrizkua.

3/ Ori kendu naiean
ekiñak lanari,
Ama eztala maite
ortikan diruri;
argi egin zaiozu
zuk Ernaniyari,
etzaitez ortik juan,
Ama polit ori!

4/ Zure eguna izaten da
udazken aldera,
zuri muñ egiteko
gure ibillera;
beti artzen gaituzu
semien antzera,
pekatariyentzako
Ama ona zera.

5/ Lenago bakarrikan
ermita txuriya,
fede sendua zuten
aitonak jarriya;
aik artuko lukete
oñaze aundiya,
ikusiko balute
tapatuan iya.

6/ Ermita ori egin zan
alkar lagunduta,
pareta oiek jasotzen
asko nekatuta;
Amak artutzen gaitu
beso zabalduta,
negar egingo luke
ortikan kenduta.

7/ Begira egondua
berari ni aurrez,
ain da txalogarriya
ta beltza kolorez;
naiz-ta bete ermita
zillarrez ta urrez,
ori ortik kentzia
gaur eztago errez.

8/ Iraillaren zortziyan
danak beregana,
badakizute ondo
juaten gerana;
bera du Ernaniyak
aur guztiyen Ama,
etzaitez ortik jua,
Amatxo laztana!

9/ Gure guraso zarrak,
aien aurrekuak,
Zikuñaga'ko Amak
maitatutakuak,
bere magal maitian
goxatutakuak;
guk ezin oinperatu
aik utzitakuak.

10/ Zenbait guraso jator
beren aurtxuakin,
Zikuñaga'ra danak
Aman egunakin;
gu're juañ izan gera
aita ta amakin,
bai berak artu ere
biotz zabalakin.

11/ Esaten dute dala
gaitz asko kentzeko,
fedez juaten bada
Ama laztantzeko;
ura beti dago prest
danai laguntzeko,
motibuak badira
asko maitatzeko.

12/ Euskaldunak fedea
badiyo Amari,
otoitz egiten zaio
juanda berari;
norbait ere badabil
kendu naian ori,
euskaldunak gerala
gezurra diruri.

13/ Amaren kontra egin
ainbeste pekatu,
lengo oitura zarrak
ditugu aldatu;
berak, min artu arren,
guztiyak barkatu,
orrelako Ama bat
nola ez maitatu?

14/ Danai komeni zaigu
goguan artzia,
pena izango litzake
ermita galtzia;
nunai ezta izaten
olako pitxia,
errespeta dezagun
Amaren etxia.

15/ Guk ezin genezake
Amarik bialdu,
ez gaitezen anaiak
betiko argaldu;
elizaren lurrikan
etzazute saldu,
Zikuñaga'ko Amarik
ez dedien galdu.

16/ Orain urte pare bat
izan zan jolasa:
or denbora geiago
ezin zula pasa.
Gaur ezta olakorik,
lasaitu arnasa;
oi da zure etxea,
egon zaite lasa!

17/ Ama orren laguntza
guretzat atsegin,
sentitzen dan bezela
biar da itzegin;
ez diot nik eman nai
biotz barruan min,
ixildutzera nua
aspertu ez dedin.

18/ Ordua iritxi da
lanak amaitzeko,
gaizkirik egin badet
Amak barkatzeko;
erritar maitiari
Amaz oroitzeko,
dagon toki goxotik
ez bialdutzeko.

NERE LAGUN UZTAPIDERI BIOTZ-BIOTZEZ

1/ Zestua'ko seme bat
Uztapide'kua,
euskerarentzat asko
saiatutakua;
arrokeri gabeko
gizona bapua,
gaur ezta billatutzen
nunai olakua,
aita bat bezelaxe
maitatutakua.

2/ Gutxi izaten dira
orrela diranak,
ondo irabaziak
zuk dituzun famak;
zurekin kantatutzen
ibili giñanak,
zuretzako nunai ta
beti lagun danak;
amaika konseju on
baditu emanak.

- 3/ Iñoiz eztu maitatu
arrokeririkan,
burua makurtuta
ibili baizikan;
beti errespetoz ta
ixil-ixilikan,
etzitzaion paltatzen
iñun lagunikan,
sortuko al da berriz
orrelakorikan?
- 4/ Gaizki esaten ez det
nik beñere entzun,
izketan jardutiak
poza ematen zun;
juaten zan tokiyetan
guztiyakin lagun,
gaur Ergoien'en dago
umill eta txukun,
pozik egon zindezke
zu ere, Oiartzun!
- 5/ Ikatz egiten asi
gaztia ziñala,
an e saiatuko zan
ori egiñala;
pentsatu urte batzuk
izango dirala,
gaur ere jarraitzen du
umil da apala,
geienak badakigu
jatorra zerala.

- 6/ Danok izandu degu
Manuelen premiya,
ori izandu baita
gure giyariya,
ara, lagunak, esan
biotzez egiya;
gaitzak arrapatuta
ixildu txoriya,
lagun guziyak penaz
lertu giñan iya.
- 7/ Zepai zana ta biak
amaika alditan
kantatutzen zutenak
juandako erritan,
itxuraz antzian da
gizonan neurritan,
alkar zirikatuaz
ta saio aunditan,
poz ederrak emanaz
juandako tokitan.
- 8/ Jakinduriyaz ondo,
eskolatik urri,
auxen entzunda nago
askotan zeorri;
gu're bire ortatik
gabiltzanak larri,
gero beste lagun bat
zizuten ekarri:
ondo konpontzen ziran
Manuel ta Basarri.

- 9/ Zuen premia bazun
bai Euskalerriyak,
alaitzeko tristuran
zebiltzan guziyak;
pasa erriko pestak,
auzo ta periyak,
poza pranko emanak
Basarri ta biyak,
oiek izan dirade
gure giyariyak.
- 10/ Bertso bikañak bota
burua jeikirik,
ondo konpontzen ziran
onak ziralarik;
iñoiz etzuten izan
oik bekaizkeririk,
alkarrentzat etzuten
oiek aitzakirik,
sortuko al da berriz
olako bikorik?
- 11/ Gaur txoria ixilik
bere basarrian,
artzairikan onena
zan gure larrian;
lenago grazi ona
zuen eztarrian,
mingain gozoa eta
petxua indarrian,
etzan giro izaten
aren baztarrian.

- 12/ Askotan alkarrekin
nunbait kantatzeko,
pozez egoten nitzan
arek deituzeko;
alako maitia zan
nunai ibiltzeko,
beti biotza zabal
bestei laguntzeko,
motibuak badira
Manuel maitatzeko.
- 13/ Gaztien alde beti
saiatu gogotik,
bere ondorengiak
izatiagatik;
berak suprituta're
etzion inportik,
auxe pentsatzen nuan
juanda nunaitik:
zenbat ikasten degun
Uztapiden aotik!
- 14/ Danok eztitu izan
orrelako grazik,
besterik etzekian
ondo egin baizik;
meritu aundik ditu
mundun irabazik,
nik eztet aitortutzen
ala eztan gauzik,
gazteak kantatzian
egoten zan pozik.

- 15/ Oiartzun'en bizi da
aspaldiko urtetan,
len andik ibiltzen zan
gogoz bertsuetan;
alkarrekin juanak
amaika jaietan,
orrekin kantatzeko
gu beti pozetan,
aita-semen antzera
toki guztiyetan.
- 16/ Ondo kantatutzeko
bazitun patxarak,
almazen ederra zun
Manuelen ganbarak;
aren bertsuarekin
jendian algarak,
gero ixildutzeko
etorri bolarak,
kalte ederra badu
geroztik euskarak.
- 17/ Ezkondu ta Oiartzun'en
jarri zan bizitzen,
obeto izango zala
nunbait igarritzen;
Euskalerra danera
andik zan ibiltzen,
deitzen zuten danairi
biotzez serbitzen,
orain goxoki dago
pamelia azitzen.

- 18/ Jaungoikuak eskuan
dauka agintzia,
beste bueltarik ezta:
antxen umiltzia;
zeñen errexu degun
gaitzak etortzia!
Danontzat kaltegarri
Manuel ixiltzia,
okerrago izango zan
burua galtzia.
- 19/ Emazte ta semea
bizitzen berekin,
Manuelen anaia're
ortxen da oiekin;
pake santu onian
oitura zarrakin,
alkarri lagunduaz
biotz onarekin,
ondo konpontzen dira
danak alkarrekin.
- 20/ Ara bertso batzuak
zure izenian,
nai nuke izatia
gozotasunian;
Manuel nun dagoan
jakin nai danian,
Ergoien aldera jo
al dezutenian,
Oiartzun'en bizi da
Laguntzarrenian.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^o Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^o Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^o Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.


31. *M. Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elizegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*) .
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972.
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.



1051001

G-128/12



AUSPOA
LIBURUTEGIA

G-1

IMPRESO EN ESPAÑA